

Errusia nazioartean

Kristalezko murrua hautsiko ote?

Herrialde handia, arazo handiak: Errusiak azken hamarkadako hazkunde ekonomikoaren ondoren gorriak pasa beharko ditu krisi ekonomikoarengatik. Baina harreman mota berria has dezake AEBekin, Barack Obamaren planak serioak badira. Gerra Hotzak porlanezko murrua bota zuen, kristalezkoa, sofistikatuagoa, jartzeko. Hautsiko ote da hori ere?

GORKA BEREZIARTUA

ONDOAN eseri eta esan zuen: “Errusia da munduko herrialderik handiena: gizon indartsuenak ditugu, eta emakume ederrenak; eta zuek ez baduzue vodka edaten, ez zarete gizon osoak izango”. *Yuppie* bat zen, Roman Abramovitxen fotokopia zimur bat, azken hamarkadan Errusian asko ugaritu den espeziea; eta gau hartan lagunekin atera bazen ere, hiru turista euskaldunekin hizketan bukatu zuen San Petersburgoko taberna batean. Bistan da ez dela sendatzen nazionalismoa bidaiekin, beste hark zioen bezala. Bidaiekin beste nazionalismo batzuk ezagutzen dira gehienez. Adibidez, Errusiakoa.

Eta nazionalismo horren atzean, mendebaldarrok ondo ikusi ez dugun pelikula dago. Sobiet Batasunaren gainbeheratik gure egunetarako Errusia ezezagun egin zaigu; gure albisteetan azaldu denean, mila deaburen koloreekin jantzi dute. Joan den abuztuko zenbaki batean, Georgiako gerra hizpide, *Time* aldizkariak honako titularra eraman zuen azalera: “*How to stop a new Cold War*” (Nola geldiarazi Gerra Hotz berri bat). Ados, Errusia ez da 1990eko hamarkadako trapu zirtzilatu hura; azken urteotako hazkunde ekonomikoak erraldoiaren oinak berotu ditu, baina... Gerra Hotz berria? Hainbesterako? Zein da Errusiaren indarra gaur egun?

Elkarri keinuka hasi dira Barack Obama eta Dimitri Medvedev: Bushekin alderatuta, badirudi AEBetako presidente berriak bestelako harremanak izan nahi dituela Errusiarekin

Obamaren “reset” botoia

Ezaguna da Barack Obama AEBetako presidente berriari zenbat gustatzen zaizkion gaxet elektronikoak; eta ezaguna ez bada, bera arduratzen da ezagutarazteaz. Martxo hasieran, adibidez, “reset” botoia sakatzeaz hitz egin zuen. Errusiaz ari zen: Bushek ez bezala, Obamak harreman ona izan nahi du Errusiarekin; hala adierazi du; eta Dimitri Medvedev Errusiako presidentek ez du asko behar izan erantzuteko. Azkar batean onartu dizu telefonoz eta kartaz hitz egin dutela dagoeneko. Martxoaren 31n *The Washington Post* egunkarian idatzitako artikulu batean, Errusia eta AEBek konpondu gabe dauzkaten arazoak zerrendatu zituen; ondoren, Alexis de Tocqueville-en hitz batzuk gogoratu, bi herrialdeen etorkizunaren alde topa egin zuen: “Benetan sinesten dut, historiaren bihurtzearen honetan, elkarrekin egin behar dugula lan”. Badirudi *Time* aldizkariak bolada batean ezingo duela publikatu joan den abuztuko bezalako titularrik.

Obama-Medvedev erromantzearen azken kapitulua joan den asteko G-20aren bileran idatzi zen, bi presidenteen arteko zitan. Goizegi da harreman berriak zein forma hartuko duen esateko, baina galdera bat egin behar da gutxienez: AEBen jarreraren samurtze honek zer esan nahi du? Alegia, Errusiari



Asko idatzi da Errusiaren azken hamarkadako hazkunde ekonomikoaz, baina adituek argi dute krisiak zapaldu ederra emango diola ekialdeko erraldoiari. Goiko argazkiak islatzen du egoera, apika. Izan ere, zein da benetako Errusia: Moskuko Kristo Salbatzailearen elizako urrezko kaperapean bizi dena, ala euriari plastikozko poltsarekin kontra egiten dion zaharra?

nazioartean protagonismo handiagoa aitor-
tzea al da, zeharka bada ere?

Asier Blasek ez du uste AEBetako presi-
dente berriaren mugimenduak bide horretatik
doazenik. EHUko Politika eta Adminis-
trazio Zientzien saileko irakasleak ondo
ezagutzen du ekialdeko Europa. Handik
egindako bidaiekin eta azken hamarkadetak
testuinguru politikoarekin osatu zuen *Atzoko
eta gaurko barresiak* liburua (Txalaparta,
2004); ekialdeko Europaz dihardu 2007tik
idazten duen *Cartas del Este* blogak ere
(<http://postsovietico.blogspot.com> helbi-
dean aurki dezakezue). Eta bere ustez, zaila
izango da datozen urteetan Errusiak AEB-
ekin hika hitz egitea, ikusita zein itsatsita
dagoen errusiar ekonomia AEBetako finan-
tzen gorabeheretara. “Errusiarren diru asko
dago Estatu Batuetako inbertsio fondoetan,
eta, gainera, erabat lotuta daude dolarrare-
kin”. Beraz, bai, Errusiak azken hamarkadan
burua altxa du; bai, egonkortu egin da; bai,
nazioartean bestelako itxura hartu du; inber-
tsio militarrek besteak beste, hazi egin dira.
Baina, ez, egoera ez da etxafuegoak botatze-
koa. Blasek kolore ilunekin margotu du gaur-
ko Errusiaren koadro ekonomikoak: “Momentu
honetan bizi duten egoera oso

txarra da: berriro hasi dira pentsioak ez
ordaintzen, batez ere Moskuko periferiako
erregioetan; medikuntza alorreko gastuetan
izugarritzko mozketak egin dute; Medvedev-
ek aitortu du sei milioi langabe dauzkatela...”

Ekonomiaren galdera ikurrekin, Erru-
sian ere baso bat osatzen ari da. Baina
basoa zeharkatzeko batere gaizki etortzen
ez diren baliabide bi ditu herrialdeak:
petrolio eta gasa. “Hor dago nazioarteko
harremanetako borroka –dio Blasek–.
Errusia momentu honetan deabru txiki
edo ertaina baldin bada, da energia iturri
horietan konpetidore bat delako”. Eta kon-
petentziarako posizio hobean dago, Gerra
Hotzaren amaieran baino.

Memoriaren gerra

Errusiaren azkenaldiko historia, neurri handi
batean, baliabide horien kontrola lortzeko
gatazkek zehaztu dute. Testuinguru historiko
zabalagoan kokatzeko, interesgarria da Nata-
lia Narotxnitskaia-ren liburu bat irakurtzea.
Frantzia iazko azaroan argitaratu zen *Que
reste-t-il de notre victoire? (Zer geratzen da gure
garaipenetik?)*, Errusia eta Mendebaldearen
arteko “gaizkiulertua” betaurreko errusiarre-
kin irakurri gura duena.

Errusia nazioartean

1982 eta 1989 artean NBEko Sobiet Batasunaren ordezkartzen lan egin zuen Narotxnikskiak, New Yorken: nazionalista errusiarra, antiboltxebikea, antiliberala, kristau ortodoxoa eta Txetxeniako gudaren defendatzailea da; Rodina alderdiko diputatua izan zen Duman, eta 2008tik Errusiako Demokrazia eta Kooperazio Institutuko zuzendaria da Parisen.

Aipatutako liburuaren tesia, lerro gutxitan esateko, honakoa da: Sobiet Batasunak XX. mendean munduko potentzia izatea lortu bazuen, ez zen izan 1917ko iraultzarengatik; izan zen II. Mundu Gerrako garaipenarengatik, eta garaipen hori, Gerra Abertzale Handia proklamatzuz lortu zuten. Hau da, ideal komunista bazterrean utzi, eta Errusia Handia itzuli zenean hasi zen herrialdea nazioartean nor izaten... eta benetako arazo bihurtzen Mendebaldearentzat.

Eta horregatik, dio Narotxnikskiak, Mendebaldeak edozein proiektu politiko onartu izan du Errusiarentzat (komunismoa, liberalismoa...) baldin eta ezbaian jarri badu herrialdearen naziotasuna eta lurraldetasuna. Liburuan gehiegikeria batzuk irensteko zailak badira ere –boltxebikeei buruzko teoria konspiratibo bat tartean–, merezi du autoreak joan den mendeko geopolitikari ematen dion errepasoak. Batetik, Errusian nahiko errotua dagoen ideologiaren isla delako; eta, bestetik, Europan beste muturreko irakurleontzat bidea ematen duelako gure historia hurbilari begi berriekin so egiteko.

Liburua ez da II. Mundu Gerraren memoria bakarrik. Memoriaren gerrarako arma da: paralelismo interesgarri bat baino gehiago egiten du, adibidez, I. Mundu Gerraren osteko egoeraren eta 1990eko hamarkadaren artean, eta horren bidez esplikatzen ditu ekialdeko Europan azken urteotan ikusi ditugun prozesuak, Yugoslaviaren zatiketarik Ukrainako iraultza laranjaraino, ahaztu gabe NATOk Europa ekialdeko herrialdeak bereganatzeko egin duen lana. Prozesu horiek geopolitika britainiar klasikoan aspaldi errotutako printzipioei jarraitzen diotela uste du Narotxnikskiak; AEBek tankerako printzipioak erabili dituztela; eta printzipio horiek Errusiaren interesen kontrakoak direla, noski.

“Borroka inperialistaren klabea ulertu behar dira horrelakoak” baieztatu du Asier Blasek telefonoaren beste aldetik, nahiz eta desberdindu egin dituen, adibidez, Georgian iazko udan izandako gatazka militarra, eta Ukrainako egoera. Bere esanetan Ukrainan,



Natalia Narotxnikskaia goiko argazkian. Historia liburua baino gehiago da iaz Frantzian argitaratu zen *Que reste-t-il de notre victoire?* Liburu horretan Errusia eta Mendebaldearen arteko harremanen berrirakurketa proposatzen du egileak.

Europar Batasunak AEBen politikak jarraitu ditu Errusian eta ekialdeko Europan. Jarrera horrek kontinente zahararentzat izan ditzakeen ondorio kaltegarriak nabarmendu ditu Natalia Narotxnikskiak

Errusia eta AEBen arteko lehiak gain, barne faktoreak ere garrantzitsuak dira: ekialdea rusofonoa eta aberatsa da; mendebaldea, pobregoa eta Mendebaldearen zalea; herrialdearen erdi batek berez jotzen du Errusiara, kanpotek tiraka ibili gabe.

Eta Europar Batasuna zer?

Filmeko hirugarren protagonista izan behar zuen, baina orain arte atzeko planoan geratu da EB, ozeanoaren beste aldeko aktorearen itzalean. *Que reste-t-il de notre victoire?* liburuko parterik interesgarrienean, azken kapituluan, etorkizuneko munduaz hitz egiten du Natalia Narotxnikskiak. Kapitulu horretatik ateratako pasartea duzu hurrengo: “Europak mundu unipolarraren osaketa hobetsi du, eta poztu egin da Errusiak Baltikoan eta Mediterraneoan posizioak galdu dituenean (...) Gaur egungo munduaren banaketak daukan helburu nagusienetakoa baliabide naturalen kontrola da; hori da egungo gerretan jokoan dagoena. Errusia Mediterraneoetik isolatzeak rol garrantzitsua jokatzen du prozesu horretan, baita Itsaso Beltzetik eta Kaspiarretik isolatzeak ere”. Eta hori zergatik ote den galdetzen duzu. Bada, hor dagoelako “munduko energiaren elipsea” (ikusi mapa): planetaren petrolio erreserben %70 inguru



“Munduko energiaren elipsea” goiko mapan. Marra urdinaren barruan dago munduko petrolio erreserben %70 eta gas erreserben %68. Kolore horiz margotutako herrialdeek metro kubikotan, bat eta bost trilioiren arteko erreserbak dituzte; berdez margotutakoek bost eta hamar trilioi artean; eta arrosaz margotutakoek, hamar trilioitik gora (tartean, Errusia).

biltzen da lerro urdinaren barruan; baita gas erreserben %68 ere. Eta horra Narotx-nitskaiak Europari luzatzen dion gomen-dioa: inguru horietan AEBen gonapean ibiltzeari utzi behar diola, ez badu nazioar-teko mapatik desagertu nahi. “Munduaren banaketa progresiboaren ondorioz, ia urte-ro esku-sartzeak izan dira herrialde subira-noetan –dio– baina interbentzio horien azken helburua ez da Europa indartzea”. Eta aurrerago: “Badirudi Europa ‘zaharra’

orain arte ez dela konturatu banaketa berriaren ondorioetako bat, ezinbestean, bere mundu mailako rolaren gainbehera dela”. Ondotik, Europaren eta Errusiaren arteko lankidetzaren aldeko apustua dator, eta azken puntuaren aurretik honako sententzia: “Errusiaren etorkizuna, Europaren etorkizuna da”.

Hala ote den edo ez baloratzea irakurlearen esku utziko dugu. Garbi dagoena da, krisi ekonomikoak zabaldu egin dituela arra-



gure artean euskaraz

(1909-1996)

Euskaltzale bizkaitarrak

100. urteurrenean

*Lanñol, euskal lurraldea
gerriz estutzen dokona;
biar, otol, ene odolá
aize-bizfada bizkor;
gure erraren loa
emarazi nai neurek,
zar ta gaste, urte, guraso*

*enda-su kizkalkorren
-burdina matar gori bi-
alkar erantsi azirik,
‘Eta beñil, gerora,
ene arnasaren galifa
ara ta ona, aspertu barik,
áiloko asabak, be pietu nniez.*



BFA DFB

Aita Santi Onaindia



Ez da denbora asko pasa baina ederki aldatu da egoera: ezkerreko irudian, 2008ko abuztuan AEBetako *Time* astekariak kaleratu zuen azala. Georgiako gatazka militarren harira “Gerra Hotz berri bat” nola saihestu zitekeen galdetzen zuen. Bushen administrazioarekin asko korapilatu ziren Errusiarekiko harremanak. Goiko argazkia berriz, aurtengoa da, apirilaren 1ekoa, G-20aren bileran ateratakoa. Ezkerrean, Dimitri Medvedev Errusiako presidentea. Eskuinean Barack Obama, AEBetakoa. Obamak Errusiarekin “reset” botoia sakatu nahi duela adierazi du.

kalak bestela ere pitzatzen hasia zen mundu unipolarrean. Aktore berriak datoz, beraien parte eskatzeko asmoz: Txina, Brasil, India eta... Errusia. “Europa berriz, urte askoan erreferentzia izan da politika multilateral eskatzerakoan; baina praktikan, AEBek egiten dutenaren zain dago” diosku Asier Blasek. Horren adibide garbiena Frantziak eskaini berri du bere ustez, NATOren adar militarra itzuliko baita 43 urtez kanpoan egon ondoren.

Urte batzuk beharko dira krisi ekonomikoak munduko herrialde bakoitza zein lekutan uzten duen ikusteko. Aurreikuspenak ez

dira onak Errusiarentzat: Mundu Bankuak adierazi du 1998an baino makurtuago bukatuko duela herrialdeak orain –eta hori asko esatea da–. Asier Blasek ere, elkarrizketaren amaieran azaldu du epe luzera “gainbeheran dagoen potentzia” dela bere ustez.

Momentuz hor dago, Mendebaldetik banatua, erdian kristalezko murru bat balego bezala. Baina kokapenagatik, hedaturagatik, eta baliabideengatik, izango du zerbait esateko hemendik aurrera ere. Azken finean, ez ahaztu: “Errusia da munduko herrialderik handiena: gizon indartsuenak ditugu, eta emakume ederrenak...”. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zkuffaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com